

Irakasleen Unibertsitate Eskola (Bilbo)

GIDA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

**Graduaren informazio orokorra Gradu
amaierako lana Practicum Aipamenak
Hizkuntzen akreditazioa**

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUKO GIDA

Haur Hezkuntza gradua izateak maistra edo maisu lanean jarduteko balioa dauka, 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, dioenaren arabera.


Gradu honetan euskaraz zein gaztelaniaz matrikulatu zaitezke, 1. mailatik 3.era ikasgai guztiak hizkuntza bietan eskaintzen baitira. 4. mailan berriz, ikasgai bakoitza hizkuntza bakarrean eskaintzen da, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez. GARRANTZI HANDIKOA da matrikulatu aurretik konprobatzea ikasgai bakoitza zein hizkuntzatan eskaintzen den.

OHAR GARRANTZITSUA: Erabakitzen baduzu Gradua erdaraz egitea, irakasgaien %25a egin beharko duzu euskaraz 3. eta 4. mailan (guztira 30 kr.). Baldintza hau betetzeko, badauzkazu, beste posibilitade artean, hurrengo hauek:

- Practicuma: 30 kreditu euskaraz egitea (Practicum II + Practicum III) (kasu honetan akreditatu beharko duzu B2 ziurtagiria daukazula)
- 3. Mailako irakasgai batzuk euskaraz egitea
- 4. Mailako irakasgai batzuk euskaraz egitea (minor oso bat edo irakasgai solteak.)
- Beste batzuk....

Gradua euskaraz egin ezkeru (osorik edo partzialki), amaitu eta gero eskatu dezakete idazkaritzan Ziurtagiri Akademiko Pertsonala (KAP) non agertuko den euskaraz eginiko kreditu kopurua . Hori guztia [apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera](http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/noticia/magisbilbo_euskera/eu_euskera/adjuntos/Euskara%20mailaren%20akreditazioa.pdf) eta gure Web orrian jasotako prozeduraren arabera http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/noticia/magisbilbo_euskera/eu_euskera/adjuntos/Euskara%20mailaren%20akreditazioa.pdf

Gradu osoaren eskema jasotzen duen irudian ikusten da graduaren dagoela antolaketa, ikasgaiak modulutan daudela antolatuta. Modu honetan moduluko ikasgaien arteko lan komuna planteatzen da, zeinen bitartez lortuko diren berari lotutako gaitasun espezifikoak zein orokorrak. Modulua interdiziplinarra da, ikasgai guztiak bideratzen duten heinean DAL edo diziplina-arteko-lana.



Informazio gehiago : [http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo nuevo plan/eu_ikasketa/plan nuevo indice.html](http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_nuevo_plan/eu_ikasketa/plan_nuevo_indice.html)

Ikasleek EHUn irauteko arauai (azterketa-deialdi, uko egite, ikerketak, ikasketak bukatzeko matrikula urteei, eta abar) buruzko informazio guztia [hemen](#) aurki dezakezu.

TALDE KOPURUA IRAKASKUNTZA MODALITATE ETA HIZKUNTZAREN ARABERA

HIZKUNTZA	MAILA	1		2			3	
	MODALITATE	MAG	GP	MAG	GP	OP*	MAG	GP
GAZTELANIA	01	1	1	1	1	1	1	1
EUSKARA	31	1	3	1	3	5	1	3

* TIC

1. Euskarazko ikasleek magistrala konpartituko dute eta bakoitzak izango du Gelako Praktika bat.
2. Nahi duten ikasleek beste hizkuntzatan egin dezake ikasgaia (euskara-gaztelania), baina horretarako ordutegia baieztatu egin beharko du. Horrela, semestre bakoitzeko lehen astean eskatu behar du hizkuntza aldaketa idazkaritzan. Eskaera onartuko zaio tokia dagoen kasuetan.

PRAKTIKAK-(PRACTICUM)

Gradu honetako praktikak derrigorrezkoak dira eta 2. 3. eta 4. mailan burutzen dira

	Konpetentziak	Maila	Haur hezk.
P I	Eskolako errealitatearen ezagutza	2.	9 ECTS
P II	Maisu/maestra rolaren ezagutza eta praktika, ikasgelaren antolakuntza eta irakaskuntza	3º	12 ECTS
P III	Aldez aurretik prestatu diren proiektu didaktikoak gauzatzea	4º	18 ECTS

Eskolako Web orrian aurkitu dezakezu Practicumari buruzko informazio osoa :
http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/horario/magisbilbo_practicum/eu_practicu/practicum.html

KREDITUAK ONARTU ETA TRANSFERITU

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TENIKARI IKASKETETAN KREDITUAK ERREKONOZITU.

Haur hezkuntzako goi mailako teknikari ikasketak burutu dutenek Graduan 30 kr. errekonozitzea eskatu dezakete. Informazio gehiago [hemen](#)

JARDUERA ESPEZIFIKOENGATIKO KREDITU-ONARPENA

UPV/EHU n matrikulatutako ikasleek eskatu ahal izango dute kredituak onartzea unibertsitateko kultur eta kirol-ekintzetan, elkartasun eta lankidetzaz-jardueretan eta ikasleen ordezkari-lanetan aritzeagatik. Unibertsitatean ikasten egon diren bitartean burututako ekintzak izan beharko dira eta gehienez ere ikasketa-planeko sei kreditu eskatu ahal izango dira, LOUko 46.2.i) artikuluari jarraiki.

Ikasleak 6 kreditu horiek metatu ez baditu, kreditu hauek hautazko gehiegikeriagatik ezagutuko dira eta Transferentzia bezala espediente akademikoan eta Titulurako Gehigarri Europarrean jasota gera lirateke. 6 kredituko topera iritsita, ikasleak aukeratu ahal izango du bere Ikasketa planaren irakasgai baten onartzea edota espedientean hautazko gehiegikeriaz eta Titulurako Gehigarri Europarrean agertzea.

Informazio gehiago: [klikatu hemen](#)

MINORRAK - AIPAMENAK

4. ikasturtean eskeintzen dira hautazko ikasgaiak. Minorra edo aipamena aukeratu dezakezun arren 30 kreditu bete ditzakezu nahi duzun moduan, aukeratzuz hautazko eskaintzatik.

Espezialitatea lortuko da soilik aipamen bereko irakasgai guztiak egiten direnean.

Aipamen horietako matrikula espedienteko notaren arabera egingo da dauden plazak agortu arte.

Azaroaren 4ko, 1594/2011 Errege-Dekretuaren arabera "*«Lehen Hezkuntzako» espezialitatea duten Maisu-maistren Kidegoko irakasleek maila honetako arlo guztietan izango dute irakaskuntza-gaitasuna. Haur Hezkuntzako 2. Zikloan, irakaskuntzan hala eskatzen duenean, beste espezialitate batzuetako maisu/maistrak laguntza eman dezakete, hezkuntza administrazioko markatuko dituzten baldintzetan»*

Dekretuak honelaxe dio, "2. artikulua. Maisu-maistren Kideko irakaskuntza-espezialitateak" artikuluan:

1. *Honako hauek dira, zehazki, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan jardungo duten Maisu-maistren Kidegoko irakaskuntza-espezialitateak:*

- *Haur Hezkuntza.*
- *Lehen Hezkuntza.*
- *Atzerriko hizkuntza: ingelesa.*
- *Atzerriko hizkuntza: frantsesa.*
- *Atzerriko hizkuntza: alemana.*
- *Gorputz Hezkuntza.*
- *Musika.*
- *Pedagogia terapeutikoa.*
- *Entzumena eta hizkuntza"*

Gainera, 2012ko abuztuaren 27an, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako salburuaren aginduak onartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia eta horren arabera hauek dira Haur Hezkuntzan lan egiteko baldintzak eta tituluak

Haur Hezkuntza 950	- Maisu-maistraren titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasletzako diplomadunaren titulua, espezialitatea: Eskolaurrea. - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakaslearen titulua + Filosofiako eta Letretako (Hezkuntza Zientzietako atala) edo Filosofiako eta Hezkuntza Zientzietako (Hezkuntza Zientzietako atala) lizentziaturen Eskolaurreko Hezkuntzako edo Eskolaurreko Pedagogiako espezialitatea. - Gradua Haur Hezkuntzan.
--------------------	---

Atzerriko hizkuntza:

Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa 954	- Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Ingelesa) espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasletzako diplomadunaren titulua, Ingeles Filologiako espezialitatea. - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren titulua + Hizkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa Ingelesean (ikus EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatuetan arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza
-----------------------------------	---



	gaitasunen eskakizunak ezartzen dituen dekretua). - Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakaslearen titulua + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Ingelesa) + Hizkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa Ingelesean (ikus EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatuetan arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezartzen dituen dekretua). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).
--	--

Musikan:

Música 957	- Maisu-maistraren titulua, Musika Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakaslearen titulua + 617/1995 Errege Dekretuko goi-mailako titulua edo baliokideak. - Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakaslearen titulua + Lizentziaduna Musikologian edo Musikaren Historian eta Zientzian. - Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakasle-diplomaren titulua + 1/1990 Lege Organikoko edo 2/2006 Lege Organikoko musikako titulu profesionala. - Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko maisu-maistraren edo irakasle-diplomaren titulua + Gradua Musikaren esparruan (631/2010 ED). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Musikan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + 617/1995 Errege Dekretuko goi-mailako musika-titulua edo baliokideak. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Musikologian edo Musikaren Historian eta Zientzietan edo Gradua Musikaren Historian eta Zientzietan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + 1/1990 Lege Organikoko edo 2/2006 Lege Organikoko musikako titulu profesionala. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Gradua Musikaren esparruan (631/2010 ED).
------------	--

Ez ahaztu minor bakoitzeko plazak mugatuak direla; hala ere 4. mailako ikasleek gradua amaitzeko behar diren besteko plaza eskeintza egiten da. Plazaren esleipena matrikulako ordenaren arabera izango da.

Hautzakoak aukeratzekoan GARRANTZIZKOA da kontuan hartzea:

1. Ordutegiak bateragarriak izatea. Minor bereko ikasgaiak badute ordutegi bateragarria, minor desberdinetakoak aukeratu ezker matrikula aurretik ordutegiak begiratzea aholkatzen da.
2. Ikasgaia eskaintzen den hizkuntza, hautazko ikasgaiak hizkuntza bakarrean eskaintzen baitira. GOGORATU 1 eta 2 mailetan gaztelaniaz matrikulatuta daudenak 30 kreditu euskaraz egin behar dituztela 3 eta 4 mailetan.
3. Atzerriko Hizkuntzaren kasuan B2 aurkeztu behar dela matrikulatu aurretik eta Musika minorrean sailaren aholkuak daudela, bietan ere kontuan hartzeko aurrebaldintzak daudela,

Gradu honetan eskaintzen diren **Aipamenak hurrengoak dira:**

MUSIKA HEZKUNTZA: 45 plaza (Euskaraz soilik eskaintzen da)

Asignatura/ikasgaia	Idioma /hizkuntza	Departamento/saila
27586.- Ahots Hezkuntza eta Kantua	Euskera	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila
27585.- Entzumen Hezkuntza	Euskera	
27587.- Erritmoa, Mugimendua eta Dantza	Euskera	
27589.- Hizkuntzen Elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik	Euskera	
27588.- Prestakuntza Instrumentala	Euskera	

Aipamen hau gauzatzeko aurre-baldintzarik eskatzen ez den arren, Musika Adierazpidearen Didaktika Sailak, minorraren arduradun denak, honako gomendio hauek ematen ditu:

Musikarekin lotutako irakasgai espezifikoak gauzatzeko, ezinbestekoa da musika-irakurketa eta -idazketaren oinarritzko ezagutzak edukitzea, eskolan, lanerako material gisa erabiliko diren partitura samurrekin jardun ahal izateko.

Argi dago Musika Hezkuntzako Minorrean sartzen denak intonazioarekin, erritmoaren zentzuarekin, soinu-iturrien eta entzumen-mezuen ezagutzarekin eta soinu-inguruarekiko sentiberatasunarekin lotutako gaitasunak dituela, eta baita irakasgaien edukiekin lotutako jarduera praktikoen garapenerako berezkitasuna ere; esan nahi baita, musika-adierazpena, bere alderdi guztietan: kantua, interpretazio instrumentala eta gorputz-mugimendua.

ATZERRIKO HIZKUNTZA: 30 plaza

Asignatura/ikasgaia	Idioma /hizkuntza	Departamento/saila
27583.- Foreign language Teaching: English	Ingles	Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
27582.- 2e Langue Étrangère: Français	Frances	
27596.- English for the Infant and Primary classroom	Ingles	
27581.- Development of English Linguistic competence	Ingles	
27580.- Development in English communicative competence	Ingles	

Aipamen hau egiteko, bestalde, derrigorrezko **baldintza** izango da **B2 mailako** Egiaztagiria edo parekoren bat aurkeztea. Matrikula egin aurretik, idazkaritzan aurkeztu beharko da egiaztagiri hori. Irakasgai solteetako matrikula eginez gero ere, beharrezkoa izango da egiaztagiri hori aurkeztea; "2. atzerriko hizkuntza: frantsesa" irakasgairako izan ezik, abiatze-mailatik hasten baita hori.

CURRICULUMA ETA BALIABIDEAK : 45 plaza

Asignatura/ikasgaia	Idioma /hizkuntza	Departamento/saila
27577 - Zientzien Irakaskuntzarako Jarduera, Tresna eta Baliabideak	Euskera	Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila
27579 - Currículo y Recursos Didácticos en Ciencias Sociales	Gaztelania	Gizarte Zientzien Didaktika Saila
27594 - Irakaskuntza Materialen Ikerketa	Euskera	Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
27576 - Recursos para la Enseñanza y el Aprendizaje de la Lengua y la Literatura	Gaztelania	Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
27578 - Matematikako Tailerra	Euskera	Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila

HIZKUNTZA ANIZTASUNA ESKOLAN: 45 plaza

Asignatura/ikasgaia	Idioma /hizkuntza	Departamento/saila
27571.- Didáctica de Segundas Lenguas a Alumnado Inmigrante	Gaztelania	Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
27575.- El Proyecto Lingüístico de Centro	Gaztelania	
27572.- Hizkuntza Estandarra eta Aldaerak Eskolan	Euskera	
27573.- Euskal Herriko Hizkuntzak eta Gizartea	Euskera	
27574.- Hizkuntzen Didaktikarako Ikuspegi Berriak	Euskera	

BERRIKUNTZA HAUR HEZKUNTZAKO ESKOLAN: 45 plazak (Soilik eskaintzen da euskaraz)

Asignatura/ ikasgaia	Idioma/ hizkuntza	Departamento /saila
27627.-Gizarte Ezagutzarako Proiektuak eta Berrikuntza	Euskera	Gizarte Zientzien Didaktika Saila
27629.-Haur Hezkuntzako Lehen Ziklorako Estrategia eta Teknika Psikomotorrak	Euskera	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila
27625.-Hizkuntzak eta Berrikuntza Haur Hezkuntzako Ikasgeletan	Euskera	Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
27628.-Ikusizko Arteek Berrikuntzari Egindako Ekarpinak	Euskera	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila
27626.-Zientzien eta Matematikaren Irakaskuntzako Egungo Joerak	Euskera	Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila

HAUTAZKOEN BESTE ESKAINTZA BAT:

4

L/H

Hautazko beste irakasgaiak
Otra ofertade optatividad

1.-Euskararen araua eta erabilera
6 kr


2.-Komunikazioa euskaraz: hezkuntza eta gizarte arloak
6 kr


3.-Erligioaren fenomenologia
3.- Fenómenología de la Religión
6 kr


***18 KR = DECA**

Erligioaren Fenomenologia irakasgaiak DECArako (Gaitasun Akademikoko Eliz Adierazpena) prestatzen du ikaslea. Informazio gehiago <http://www.udireligion.ehu.es/s8888-home1/es> helbidean.

Euskararen Plan Gidariak, EUE (Europako Unibertsitate Eremua) esparru berrian dagoen euskarazko irakaskuntza-eskaintzari buruzko 4.2.2 puntuan, xedatzen du graduiko ikasketa guztietan 6 ECTS kredituko bi hautazko irakasgai txertatuko direla, ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleen hizkuntza-prestakuntza bermatze aldera.

Irakasgai bat zeharkakoa izango da. Bertan, ikasleek estandarizazio-prozesuaren arauen ezagutzak landu eta sakon aztertuko dituzte, eta bide beretik, hainbat komunikazio-egoeratan horien aplikazioaren berri jasoko dute. Irakasgai horrek izendapen orokorra izango du: «Euskal Hizkuntzaren araua eta erabilera».

Lehen Hezkuntzako Graduan, hain zuzen, laugarren mailako lehenengo lauhilekoan egin ahal izango da irakasgai hori.

Beste irakasgaia, berriz, espezifikoa izango da, eta titulu bakoitzaren premia eta eduki berezietatik eratorritako hizkuntza- eta terminologia-eskakizunei egokitutakoa izango da. Lehen Hezkuntzako Graduan, hain justu, "Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloa" izena dauka irakasgaiak, eta hau ere laugarren mailako lehenengo lauhilekoan egin ahal izango da.

Bi irakasgai horiek graduiko 240 ECTS kredituak bete ondoren egin nahi badira, Tituluaren Gehigarri gisa zenbatuko dira irakasgai horiei dagozkien kredituak. Irakasgai horietako matrikula egin ahal izateko, ezinbestekoa da Ikastegiaren oniritzia lortzea, ikasturteko lehenengo astean matrikula zabaltzeko (Idazkaritzan baino ezingo da egin zabaltze hori).

Bestalde, Euskararen Plan Gidariko irakasgaiek euskaraz ikasten ari diren ikasleen hizkuntza-prestakuntza bermatzen dute, eta beraz, hizkuntza-egiaztagiriak lortzeko baliatu daitezke.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialen aitortzari eta euskarari dagozkion hizkuntza-egiaztapenak eta tituluak egiaztatzeko salbuespenari buruzko [Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua](#).

GRADU AMAIERAKO LANA

Gradu Amaierako Lana, ikasgai guztiak gainditu ondoren defendatzen da. Hala ere, azken ikasturtean zehar prestatuko denez irailean aukeratu eta lanean hasteko aukera izaten da. Gradu Amaierako Lan bat aukeratzeko derrigorrean gaindituta eduki behar dira 168 kreditu, kasu horretan bakarrik landu ahal izango da Gradu Amaierako Lana zuzendariaren laguntzarekin, ikasturte osoan. Horretarako, ikasturte hasieran aukeratu ahal izango da gaia, GAUR kudeaketa-plataformaren bitartez. Graduiko irakasgai guztiak gainditu ostean, eta lanaren zuzendariaren oniritziarekin, matrikula egin ahal izango da; eta lana defentsarako



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

aurkeztu ahal izango da, Araudian eta dagokion Gidan adierazitako epean eta eran.

http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/es/contenidos/informacion/magisbilbo_tfg/eu_tfg/info.html

Eskaintzen diren plazak, gutxieneko notak, kredituen errekonozimendu eta transferitu, ordutegiak, ikasturteko egutegia, azterketak, leku aldatzeak eta beste guztia kontsulta dezakezu:

<http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-home/eu/>